

Lekeitiarrek herria arnasmune izaten jarraitzea gura dute

Lagunarteko erabileran euskara geroago eta gutxiago erabiltzen dela ikusita, egoerari aurre egiteko aktibatu dira 60 bat lekeitiar.

| AMAIA UGALDE BEGOÑA |

Argazkia: UEMA

BETIDANIK herri giro euskalduna izan duen herria da Lekeitio (Bizkaia). Azken erabilera neurketetan, oster, egoera aldatzen dabilela ikusi dute. Hamar lekeitiarretik 8,6 dira euskaldunak baina euskararen erabilera %80 bueltan egotetik %66ra jaitsi da. Hori ikusita, urte hasieratik dinamika berezia antolatu dute; UEMaren arnasmune tailerretan parte hartu dute 60 bat lekeitiarrek. Herrian kale erabilerari buelta emateko lana hasi dute orain.

Lagunarteko erabilerak egin du behera Lekeitio, batez ere 25 eta 55 urte artekoen berbaroen. Elkarriketen %54,2an egiten dute euskaraz, 2008an Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketaren arabera. Helduen artean, herriko bi ikastetxeen inguruetan entzuten da gaztelania gehien: elkarriketen %43 hizkuntza horretan neurtu zituzten eskolaz kanpoko orduetan. Aurten berriro egingo dute neurketa, eta datuekin kezkatuta daude.

Euskararen atzerakada nondik datorren ez dakite oso ondo. Iker Ajuriagerra Lekeitioko Udaleko euskara teknikariaren berbetan, lehen baino portzentaje handiagotan tartekatzen dira euskara eta gaztelaniazko esaldiak. Lekeitioko aldaketa sozioekonomikoek zerikusia izan dezaketela uste du Ajuriagerrak: “Lekeitio itsasora begira egon den herria izatetik turismora begira dagoen herria izatera pasatu da.



UEMAk antolatutako hitzaldi eta tailerretara 30 lagun bildu ziren hasieran. Gaur egun, 60 lekeitiarrek osatzen dute taldea.

Kanpoko jendeari begira gaude lanean eta horrek eragingo duela uste dugu”. Euskaldunak ez diren herrietan ikasi eta lan egiteak ere eragina izan dezakeela ondorioztatu dute UEMako tailerretan. Hizkuntzagaz lotutako tentsioari dagokionez, erlaxazio puntu bat bizi dutela ere azaldu dute.

Aurten datu horiei buelta emateko saiakera bat egiten hasi dira lekeitiarrek. “Aldaketa orain eman denez, oraintxe eragin behar dugu”. Eta herritarrek motibatzea

lortu dute. Herrian datuak zabalatzeko gutun bat bidali zuten, eta Euskara Batzordean, hausnarketarako taldea zabaltzea pentsatu zuten. “Batzordean batzen ginen hamabi lagunak kezka berezi hori geneukan; erabilera informala jaitsi egin dela. Baina ez genekien kalean kezka hori bazegoen ala ez”, azaldu du Ajuriagerrak. Erantzuna oso ona izan da. UEMaren tailer eta hitzaldietan 30 pertsona hasi ziren parte hartzen, eta amaierarako 60 lekeitiarrez osatu dute taldea;

“konturatu gara kezka hori bada-goela kalean”.

Lekeitiar asko, lasai

Tailerretan parte hartu duten batzuk arinagotik zeuden datuekin kezkatuta; beste batzuek ordea, ez zuten uste egoera txarra zenik. Herrian ere orokorrean jendea lasai dagoela uste dute: “Sinistuegi daukagu arnasmune garela eta ez dugu kontrakoa ikusten harik eta datuekin etortzen zaizkigun arte”, esan du Aitor Abaroak, tailerrean parte hartu ostean. Fernando Garateak, batzordetik gonbidapenak egiten hasi zirenean gertatutakoa kontatu du: “Errekaduagaz hainbatengana joan nintzen, eta datuak emandakoan, batek baino gehiagok esan zidan hori ez dela egia: ‘zelan horrela bajatu dela, nik betiko beste erabiltzen dut, eta nire inguruan ere bai’. Ez dira konturatzen baina gero eta gehiago tartekatzen ditugu gaztelania eta euskara”.

Kontzientziazioan, eskola inguruetan eragiteko taldea sortu dute. Bertan dago euskara erabilera baxuena (%57,3)

Bi hizkuntzak tartekatze horretan aldaketa nabaria izan dela hausnartu dute UEMAko tailerrean, eta hori da orain duten erronketako bat. Iker Ajuriagerraren berbetan, “talde handi bat ez da kontziente zein portzentajetan dabilen erdaraz, eta zelan dabilen euskara hartu-emanetan terrenoa galtzen”. Ia konturatu barik geroago eta erdara gehiago sartzen da lagunarteko elkarrizketetan. Euskararen lanketa egiteko soilik 60 pertsona

elkartu izanak, ordea, asko poztu ditu Euskara Batzordekoak, tar-tean Andoni Seijo: “Hasieran pentsatzen nuen betiko laurak ginela kezkatuta geundenak, eta asko poztu naiz hain esparru desberdinetako jendea ikusita. Abiapuntu polita da. Eragiteko modurik eraginkorrena gu geu gara; beste horrenbeste pertsonara heltzeko gaitasuna daukagu”.

Arnasmune izaten jarraitzeko premiari buruz berba egin dute tailerrean. TELP tailerra egin dute, hitzaldien bidez soziolinguistika kontzeptu batzuk barneratu dituzte, eta herriko hutsuneak identifikatu dituzte. Non eragin gura duten badakite orain.

Eskola inguruak, lan arloetako baten helburu

Euskararen erabilera eragiteko lau arlo zehaztu dituzte. Kontzientziazio arloan, ikastetxe inguruetan eragiteko talde bat sortu dute. Izan ere, datuek azaldu dutenez, bertan dago euskara erabilera baxuena: %57,3 (adin guztietakoak kontuan hartuta batez bestekoa %66 da). Bi ikastetxeetan horrela gertatzen dela azaldu dute, eskolak amaitu eta bertan jendea batzen denean. Guraso, izeko-osaba eta aitita-amamengan lanketa bat egitekotan dira: “Gurasoek gero eta gaztelania gehiago egiten dute eskola inguruetan eta ikasleen eredu da hori”.

Hizkuntzak tartekatzearen arazoa dela eta, beste talde batek Lekeitioko berba eta esamoldeak kaleratzeko egingo du lan. Erdaraz erabiltzen diren esaldi ohikoen baliokide lekeitiarrak identifikatu eta zabaldu gura dituzte. Udalak herriko erakusleho eta lokal hutsak apaintzeko proiektu bat dauka, eta hori aprobetxatuta, Lekeitioko esamolde eta berbak zabaltzeko bidea dagoela ikusi dute.

Lekeitiara eta itsasoa

LEKEITIOKO HIZKERA itsasoa-gaz oso lotuta egon dela azaldu du Iker Ajuriagerra euskara teknikariak: “Gure belaunaldia itsasoagaz loturarik ez daukan lehenengoa da. Orain arte, Lekeitioko gizon-emakume guztiek zeukaten lotura itsasoagaz, eta euskarari igartzen zen. Adibidez, mozkortuta dagoela esateko *ankilikot* erabili izan da, itsasoagaz lotura daukan berba. Gaur egun hogeitaz urteko gazte bati *ankilikot* esaten diozu eta ez dauka zentzurik ez gatzik ez ezer, horregatik ez da transmititu, eta jerga hori erdarazko hitzek ordezkatu dute”.

Hirugarren talde batek merkataritza eta ostalaritzako hizkuntza paisaia eragiteko ardura hartu du. Kartelak, menuen txartelak edota publizitaterako paperak euskaratzen laguntzea izango da taldearen helburua.

Amaitzeko, gaia herritar gehiagorengana zabaltzeko bideo bat egiten hasiko dira. Herritarrek euskaragaz daukaten hartu-emanaz berba egingo lukete. “60 lagun aritu gara Lekeitioko euskara erabileraren inguruan berbetan, eta ez da gutxi, baina zer egin herritar gehiagorengana zabaltzeko? Seguru 60 lekeitiar agertzen den bideo bat makinatxo batek ikusiko lukeela!” azaldu du Lekeitioko euskara teknikariak. Euskara batzordetik 60 lekeitiarrangana gaia eta motibazioa zabaldu duten moduan, herri osora zabaltzea da, azken baten asmoa: “Efektu biderkatzailea egon daiteke, bakoitzak bere inguruan eragiten badu”. ■



Babeslea: Hernaniko Udala



Hernaniarrok Udal aurrekontuetan parte hartzeko prozesua laster abian...

